



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

ALARMA EGOERARAKO NEURRIAK

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoeraren adierazpena dela eta, Mankomunitate honek honako neurri hauek hartu ditu, eta aipatutako alarma-egoerak irauten duen bitartean aplikatuko dira:

INGURUMENA

ZABOR BILKETA ZERBITZUA

COVID19aren proban positibo eman duten herritarrek bere hondakinak honako era honetan bota beharko dituzte:

1. **Edukiontzi bidezko sistema duten herrietan** (Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga): SOILIK errefusaren edukiontzietara botako dira; ez da hondakinen bereizketarik egingo; **HONDAKIN GUZTIAK ERREFUSAREN EDUKIONTZIETARA BOTAKO DIRA.**
2. **Atez ateko bilketa sistema duten herrietan** (Antzuola eta Oñati): ez da hondakinen bereizketarik egingo; hondakin guztiak errefusa bezala atera ahal izango dira egunero plastikozko poltsa itxietan eta LURREAN utzi beharko dira, esekitokiak dauden puntuetan. **ONTZIAK EZ DIRA ERABILI BEHAR ERREFUSA BOTATZEKO, PLASTIKOZKO POLTSAK SOILIK ERABILI BEHAR DIRA.**

Bi kasu hauetan link honetan jasotako Trantsizio Ekologikorako Ministerioak emandako jarraibideak bete beharko dira.

Errefusaren edukiontziak ireki egingo dira eta, beraz, txartelik gabe erabili ahal izango dira.

Organikoaren edukiontziak irekitzeko txartelak erabiltzen jarraituko da. Hondakinen Informazio Bulegoak ez du aurrez-aurreko arretarik eskainiko, soilik telefono (943504721) eta email (hondakinak@debagoiena.eus) bidezko arreta eskainiko du. Ez da txartel berririk edota txartel kopiarik egingo larrialdi egoerak irauten duen bitartean. Beraz, erabiltzailearen baten txartelak funtzionatzeari utziz gero, hondakin organikoaren errefusaren edukiontzira bota beharko du ezinbestean.

GARBIGUNEAK

Arrasate, Bergara eta Oñatiko Garbiguneetan SOILIK gremioen hondakinak onartuko dira. Garbigune Ibiltariari dagokionez, zerbitzu hau bertan behera geldituko da.

TRASTE ZAHARREN ZERBITZUA

Eten egin da. Ez da zerbitzu hau emango.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Momentuz, gainontzeko zerbitzuak bere horretan mantenduko dira.

Edozein zalantza argitzeko, kontsultatzeko eta abarrerako kontaktua:

Telefonoa: 943793598

Posta elektronikoa: ingurumena@debagoiena.eus

Hondakinen etxeko erabilerari buruzko Trantsizio Ekologikorako Ministerioak emandako jarraibideak

Osasun Ministerioaren gomendioen arabera, gaixo dagoen pertsonak eta haren zaintzaileak erabili eta botatzeko materiala (eskularruak, zapiak, maskarak), osasun-langileak babesteko ekipamendua (betaurrekoak eta maskara izan ezik) eta pazientearen beste edozein hondakin gelan jarritako zabor-ontzira botako da, ahal dela, estalkia eta irekitzeko pedala duena.

Plastikozko poltsa, non uzten den hondakin hau, hermetikoki itxi behar da gelatik atera aurretik. Maskara eta betaurrekoak gaixoaren gelatik kanpo kendu behar dira, horretarako ontzi bat egon beharko delarik, deskribatutakoen antzeko ezaugarriekin eta hermetikoki ixteko plastikozko poltsa batekin. Hondakinak poltsa horietan (1. motako poltsa) sartzen diren bakoitzean itxi eta baztertu egin beharko dira.

1. motako poltsa, aurreko hondakinekin, etxeko gainerako hondakinekin batera baztertu ahal izango da, hermetikoki itxita badago eta beste poltsa hermetikoki itxi batean sartuta badago (2. motako poltsa).

Gaixoaren hondakinak dituen poltsaren kudeaketa

2. motako poltsa errefusa frakzioaren edukiontzian bakarrik utziko da, erabat debekatuta dagoelarik bilketa bereiziko beste edozein frakzioaren (organikoa, ontziak, papera, beira edo ehuna) edukiontzietan edo inguruan uztea.